

# HAURRAK ETA NERABEAK KALERA ATERATZEKO GOGOETAK



*Kaixo lagunak, Zelan zaudete?*

*Lehenik eta behin, jaso ezazue agur bero bat Kokoriko Hezkuntza Faktoriako kideon partez.*

*Zailtasun eta aukeraz beteriko egun hauetan, zuekin harremanetan sartzeko arrazoia, haurrak eta nerabeak, hilabete eta erdi inguru etxetik atera gabe egon eta gero, kalera irteteko aukera izateak gure artean sortutako gogoetak partekatze eta elkarrekin hausnartzeko nahia izan da.*

*\*Testu hau Kokoriko Hezkuntza Faktoriako kideok sortu dugu. Horretarako, gure sorkuntzaz gain hedabide eta iturri ezberdinetatik jasotako informazioa baliatu dugu (Heike Freire, Romina Pérez Toldi, Oinherri, Francesco Tonucci, PETRA Maternidades Feministas, Jaime Funes, Hik Hasi).*

# EGOERA

Hilabete eta erdi inguru egon dira haur eta nerabeak etxetik atera gabe. Larrialdi egoerarekin, ez dira kontuan hartu beraien **oinarrizko eskubideak eta beharrak**, ezta beraien osasun integralerako beharrezkoak diren neurriak ere.

Itxialdi honetan zehar, oso aipamen gutxi egin da haur eta nerabeen inguruan. Beraien eskubideak zapaldu ditugu.

Azkenik, oso modu traketsean eta zehaztasunik gutxirekin, Estatuko gobernuak jakinarazi du haur eta nerabeak etxetik ateratzeko aukera izango dutela.

Itxialdia modu malguago batean bizi ahal izango dute gure familiek, baldintza sanitarioak zorrotzak izango dira baina, zer dago baldintza sanitarioetatik haratago?



## HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK

Haurra ez da bete beharreko, gidatu beharreko arbel hutsa. Pentsamenduak, iritziak, erabakiak eraikitzeko eta hartzeko gaitasuna du. Haurra pertsona da, beraz, herritarra da bere eskubide eta betebeharrekin.

Haurren Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenak (1989), lau mailatan sailkatzen ditu haurren eskubideak: **bizitzarako, babeserako, garapenerako eta parte- hartzeko eskubidea**... 18 urtetik beherako pertsona guztiak, bereizketarik gabe, subjektu aktibotzat onartzen ditu, pertsona oso bezala jasotzen ditu, eskubide osoekin, haien bizimoduari dagozkien erabakietan bereziki.

Beraz, haur eta nerabeak, helduokin batera, gure jendarteko **subjektu aktiboak** dira eta erabakien parte dira. Ikusgai bihurtu beharra dago.

Haurtzaroa eta nerabezaroa ez dira soilik etorkizuna, **oraina** ere badira. Etorkizunerako prestatzen ditugu haurrak, oraindik osorik ez baleude bezala, oraindik balioko ez balute bezala. Alabaina, haurrek **sentitu** egiten dute, **pentsatu** egiten dute eta horren arabera **jokatzen** dute. Orain da haiei hitza eman eta entzuteko momentua.

Haur eta nerabeek esateko dutena entzun, hitza eman, haien parte hartzea sustatu eta haien gaitasunetan konfiantza izan. Haien ondoan errespetuz egoten ikasi, haien **duintasuna eta nortasuna** oztopatu gabe. Helduon zeregina izango da, beraz, haur eta nerabeen altuerara begirada jaisteko benetako saiakera egitea.

# HELDUOK HAUR ETA NERABEEN BIDELAGUNAK

Haur eta nerabe guztien eskubidea da, ondoan dituen helduak bidelagun izatea, balio eta arau/ohitura batzuetan oinarrituta, hazten eta heltzen lagunduko dutena. Besteekin modu positiboan harremantzen eta munduan bere lekua topatzeko gai izaten lagunduko dutena. Egun hauetan garrantzitsua izango da:

- **Gure emozioak eta beldurrak errebisatu.** Gureak dira ez haurrenak, gure mugek ez dezaten haur eta nerabeen askatasuna mugatu.
- **Haur eta nerabeek esateko dutena entzun, hitza eman, espazioak eta tresnak eskaini,** haien parte hartzea sustatu eta haien gaitasunetan konfiantza izan. Haien ondoan errespetuz egoten ikasi, haien altuerara begirada jaisteko benetako saiakera egitea.
- **Harreman horizontalak sustatu.** Botere harremanak alde batera uzten saiatu. Haien ondoan errespetuz egoten ikasi, haien altuerara begirada jaisteko benetako saiakera egitea.
- **Haien beharrak, nahiak, kezkak, zalantzak, erabakiak eta denborak jaso eta errespetatu,** balioa eman. Ez behartu baizik eta gonbidatu/proposatu.
- **Emozioak jaso, ez ukatu,** negar egin, oihukatu eta pataleatu behar badute, horretarako espazioa eskaini, betiere haientzako eta gainerakoentzako segurua den espazioa. Ez ditugu bakarrik utziko ezta txarto sentiaraziko. Gure buruari ere espazioa eta aukera eskaini.
- **Haurrak eta nerabeak bere burua baloratua sentitzea behar du,** ezin du sentitu helduarekin daukan harremana kolokan edota arriskuan dagoela, bere ekintza edo jarrerengatik. Emozioak eta gertakariak izendatzea, zintzoak izatea, gauzei izena jartzea gehiago ez nahasteko.
- **Gertatzen ari denaren inguruan hitz egitea eta informatzea,** ez ezkutatu ezta gehiegizko informazioa eman, azalpen errazak eman, adinari egokitutakoak, dramatizatu gabe. Horrek ez du esan nahi gure emozioak ezkutatu behar ditugunik. Bestea sostengatu dezakegu sentikor adierazten, ez dira jarrera bateraezinak.
- **Sostengatzea,** alde batetik, marko egonkorra eta eroso eskainiz eta bestetik, harreman gertua eta segurua eskainiz.
- **Etorkizuna/irteera/aukerak proiektatzea.** Orain ezin gara atera baina egun batzuk barru atera ahalko gara. Orain ezin gara kalera atera baina hainbat gauza egin dezakegu (jolastu, esperimentatu, abestu, ...). Orain ezin dituzu zure lagunak ikusi baina marrazki bat egin ahal diegu edo mezua bidali.

# MAITASUNA

Haur eta nerabeei planteatu behar zaien lehen **galdera** da ea hala egin nahi duten, ea kalera irten nahi duten, zer egin nahi duten.. Erantzuna bata edo bestea izan, helduon papera hauek sostengatzea eta laguntzea izango da.

Etxean egoteagatik sozializazio prozesua etengo dela pentsatu dezakegu, ulertzen zaituztegu, lasai, hori ez da gertatuko. Oso garrantzitsua izango da haur eta nerabe bakoitzak behar duen **denbora errespetatzea**, kalera irteteak gonbidapen bat izan behar du, ez inposaketa bat.

Haur eta nerabeen **beharrak behatzea, entzutea, errespetatzea, balioan jartzea, hauei erantzutea, ...** maitasun adierazpenik zintzoena da, nerabeak zaintzea da. Beraien sentimenduak, iritziak, erabakiak, beharrak, nahiak, erritmoak, denborak, ... errespetatzea eta hauei denbora ematea/eskaintzea konfiantza, errespetua eta maitasuna adieraztea da. kalera irteteak gonbidapen bat izan behar du, ez inposaketa bat. Beraz, ez ditugu kalera irtetera behartuko. Haur eta nerabe guztien eskubidea da, ondoan dituen helduak bidelagun izatea.



# JOLAS ETA MUGIMENDU BEHARRA

**Natura eta kalearen presentzia** ezinbestekoak dira, haurtzaro eta nerabezaro osasuntsu baten garapenerako. Behar beharrezkoa dute kanpoko espazioarekin kontaktua izatea, defentsak indartzeko, mundua behatzeko, eskuak zikintzeko, putzuetan salto egiteko, .... Haurra/nerabea da subjektua eta mundua haren **ingurune naturala eta soziala**. Kanpoko espazioaren bidez, mundua ulertzeko gai izango dira.

Haur eta nerabe bakoitzak, mundua ikusteko eta bizitzari zentzua emateko **modu propioa** du, pentsatzeko eta egiteko modu propioa. Horretarako, jolasa mundua behatzeko eta eraikitzeko bidea izango da, betiere, plazeretik abiatuta.

Ezin ditugu ahaztu, oraindik bi hanketan ibiltzen ez diren haurrak. Hauek ere **modu askean** mugitzeko, lurrean egoteko eta naturarekin harremana izateko beharra dute. Beraz, horretarako leku seguruak bilatzea eta hauetaz gozatzea da gure proposamena.

# KALERA IRTEN AURRETIK:

- Hartuko dugun **DENBORA TARTEA HAURRARENA DA**, ez helduarena.
- Etxeko asanblada egin, **ERABAKI-TZEKO AUKERA EMAN**, kalera irteak gonbidapen bat izan behar du, ez inposaketa bat.
- **AURRERATU** etxetik aterako garela denborarekin esan. Ez da komenigarria egunean bertan jakinaraztea. Irteera **PROIEKTATU**. Orain ezin gara atera baina bihar edo egun batzuk/ ordu batzuk barru atera ahalko gara.
- Irteera – txangoa – ibilbidea **PRESTATU ETA ERABAKIETAN PARTE HARTU**. Zein nahiago duzu? Eta zergatik?
- Lagunak eta senideak ikusi nahi badituzte, **BISITAK PROGRAMATU** daitezke: haien etxe azpira joan eta lehiotik/ balkoitik agurtzea eta haiekin hitz egitea, abestea, ...
- Gobernuak ezarritako baldintzak azaldu. Irtenaldi mugatuak direla eta oraindik arazoak kalean jarraitzen duela azaldu. **GUTXIENKO ARAU BATZUK** finkatu.
- Aukera bat, mapa bat marraztea izan daiteke, haurrek gogoratzen dituzten elementu naturalak eta hiri- altzariak kokatuz.
- **Arropa** elkarrekin aukeratu, baita eraman nahi duten **objekturen** bat. Motxila txiki bat prestatu dezakegu mokadutxo txiki batekin eta urarekin.
- **SAIHESTU ESPEKTATIBA OSO ALTUAK**. Norberaren denbora errespetatu eta kalean egotera ez behartu.

# KALEAN ZEHAR:

- **DENBORA TARTE HAU HAURRARENA DA**, ez helduarena. Utzi erabakiak hartzen, denbora kudeatzen, zenbat denbora inbertitu eta zertan, ...
- **Haurrekin ateratzen garela** gogoratu, ez dira paseatzera ateratzen ditugun maskotak. Bere erreakzioak behatu, entzun eta une berezi hau berarekin partekatu. Kalea deskubritzeko eta bere begiradatik ikusteko une ezin hobea da, lehen aldia balitz bezala. Izaten utzi. Malguak izan.
- Oraindik **bi hanketan ibiltzen ez diren haurrekin**, orgatxoak edota porteoak baliatu ahal ditugu. Mugimendu askea esperimintatzeko aukerak eskaini, horretarako, leku aproposa eta segurua bilatuko dugu.
- **Saihestu debeku etengabeen esperientzia**: ez ukitu hori, ez urrundu, ez, ez, ... Azaldu paseatu aurretik jarraitu nahi dituzun mugak eta arauak, eta izan zentzuduna.
- **Erabakietan autonomia eta askatasuna eman**: orain ezkerretara edota eskumatara? Loreak ikusteko hamar aldiz gelditu, ...
- Norbaitekin gurutzatzean, mantendu **segurtasun distantzia eta agurtu** eguneroko arruntan egingo bazenu bezala. Jendarte – urruntzea fisikoa da, ez emozionala. Agurtzeko modu berriak eta dibertigarriak asmatu ahal ditugu: txaloak eman, zintzarri batzuk astindu,...
- **Jarduera ekonomikoa “lo” duen herri batera irteteak** beste herri bat amestea ahalbidetzen digu, zaratarik gabe, geldoagoa, mugitzeko beste modu batzuekin, ... inprobisazioarekin jolastu dezakegu.
- Kanpoan ematen duzun **denbora, kalitatezkoa** izan dadila. Ez bazarete eroso sentitzen, paseatutakoa eskertu eta lasai- lasai itzuli, aukera berriak egongo dira. Ez behartu kalean egotera. Kalitatezko denbora balioan jarri, ez zenbat denbora eta zenbat metro egiten dituzuen.
- Ibilaldi hau, zure buruarekin, familiarekin eta bizi zaren lekuarekin berriz elkartzeko hasiera bezala bizi, **hasteko aukera berria**.

# IRTEN ONDOREN:

Baliteke, etxera bueltatzean, haserrealdiak egotea. Haserrealdiak gainezka/deskarga emozionalak dira. Frustrazio eta beste min batzuk kudeatzen ikasteko prozesuaren parte.

Gure helburua ez da haserrealdia azkar pasatzea edota ekiditea (hori emozioak eta sentimenduak ukatzea da). Gure helburua: nola akonpainatu, nola balidatu emozioak, egoera kudeatzen lagundu bitartean. Baten batek txarto pasatzen duenean, behar duenerako disponible gaudela eta bere sufrimendua ulertzen dugula jakinarazi behar diogu. Baina nola?

- Gertu geratu.
- Hor gaudela berarekin, behar duenerako.
- Inguruan arriskurik edo minik eman ahal dionik begiratu.
- Subidoia jaisten itxaron, lasai, adi eta ulerkor.
- Behin pasatu zaiola: gerturatu, bere frustrazioa edo mina ulertzen dugula adierazi (edo ezer ere ez, batzuetan hobe ezer ez esatea). Agian besarkada bat behar du, edota gurekin negar egitea, isilik geratzea momentu batean edo zelan sentitzen den kontatzea (horretarako espazioa ematen badiogu).
- Moralizazioa edota aurpegiratzeak ekidin.
- Adinaren arabera, hitz egin ahalko dugu edo ez, dena ez da hitz egin behar keinuek eta gorputzek dena esaten dutenean.
- Agian leher eginda egon daiteke, mimoak edota atsedena hartzea behar izatea liteke, edo korrika atera berriz ere jolastera ezer gertatuko ez balitz bezala.

Garrantzitsuena, harremana eta konfiantza zaintzea, gu toki segurua garelako jakitea izango da, adierazi ahalko den toki segurua. Hor gaudela, baliotsua dela guretzat eta ulertzen dugula. Haserrealdiak pasatzen dira, gure arteko harremana luzeagoa da. Emozio eta sentimendu guztiak onargarriak dira, gehiago edo gutxiago gustatu, ez gara inor besteak sentitzen duena epaitzeko.

Nahi izatekotan, irteera ekintza berezi batekin ospatu - gogoratu dezakezue irtenaldia, atsegin duzuen bazkari bat, dekorazio ezberdin bat, erritual txiki bat, sentitu eta gertatutakoaren bideo/argazki laburpenak egin, ... Azaldu eta partekatu zuen bizipenak, sententziak, ezustekak, aurkikuntzak, beldurrak, pozak, ... Irtenaldi bakoitzarekin ikasten ari zaretenarekin, hurrengo prestatzeko esperientzia jaso duzue. Guztiak ezberdinak izango dira, guztiak baliotsuak.



# ...ETA NERABEEKIN ZER?

Aurreko guztia kontuan izanda, 14 – 18 urte bitarteko adin tarteari espazio berezia eskaintzea garrantzitsua ikusten dugu. Ez da haurra ezta heldua, beraz, nerabeak **harreman eta kudeaketa sozial desberdina** behar du. Estatuko gobernuak 14 urtetik beherako haurrek etxetik ateratzeko baimen agindua eman du, baina 14 – 18 urte bitarteko nerabeak beste behin ahaztuak izan dira, linbo batean geldituz. Modu horretan, adin tarte horretako nerabeek familiareko zaintzen rola eta ardurak hartu ditzakete: erosketak egin, animalien zaintza, pertsona helduen zaintza, ...

Ezin dugu ahaztu, **nerabeak pertsonak dira, herritarrak dira haien eskubide eta betebeharrekin**. Baina non gelditzen dira nerabeen eskubideak?

Aurreko lerroetan aipatu bezala, nerabezaroa ez da soilik etorkizuna, **oraina ere bada**. Etorkizunerako prestatzen ditugu nerabeak, oraindik osorik ez baleude bezala, oraindik balioko ez balute bezala. Alabaina, nerabeek sentitu egiten dute, pentsatu egiten dute eta horren arabera jokatzeko dute. Bada haiei hitza eman eta entzuteko garaia, asko dute esateko.

Jendarteko subjektu aktiboak dira, badakite **zer nahi duten**, beraz, planteatu behar zaien lehen galdera da ea hala egin nahi duten, ea kalera irten nahi duten, zer egin nahi duten. Erantzuna bata edo bestea izan, helduon papera hauek sostengatzea eta laguntzea izango da. Konfiantzazko harreman horizontala eta gertua izan behar dugu oinarri.

## NERABEEN BEHARRAK

Nerabeek hiru behar nagusi dituzte momentu honetan: **lagunekin egotea, gurasoekin/familiarekin ez egotea eta ardura izatea/sentitzea**.

Kontua da ez dutela egun osoan guraso/familiarekin egon nahi. Beraz, guraso/familiaren etengabeko presioak erregulatu gabeko denboratarteak behar dituzte, **intimitaterako tartearak**. Garrantzitsuena, kasu honetan, ez da ateratzea edo ez ateratzea, baizik dauden dinamikatik ateratzea. Helduoi ere gertatzen zaigu.

Ezohizko egun hauetan, tentsioak eta amorruek gehiago pilatzen ari dira, eta guztion tolerantzia maila jaisten ari da, baita gurasoena ere, beraz, tentsio eta amorruek kanporatzeko beharra izango dute, modu batera edo bestera, bideratu behar dira. **Kalera ateratzea, hau bideratzeko eta lasaitzeko arnas gunea izan daiteke**.

Nerabeak kalera irtetea nahi badugu, oso garrantzitsua da, argi izatea kasu gehienetan ez dela gurasoekin/familiarekin izango, horixe baita, hainjustu, nahi ez dutena. Hori planteatzen bazaie, beraiek izango dira atera nahiko ez dutenak, **euren espazioa behar dutelako**, heldurik gabeko espazioa. Honek heldu askorengan zalantzak eta beldurrak sortuko ditu, oso zabaldua dagoen ideia datorkie burura: "nerabeek paso egiten dute, nola utziko diegu kalera ateratzen?" Berehala arriskua gure buruaren jabe egiten da eta hau saihesteko, limite mugatzaileak ezartzea erabakitzen dugu eta etengabeko borroka batean hasten gara.

**Negoiazioa eta konfiantza** izango dira eskaini ahal diegun maitasunik errealena. Ez da erraza izango, denon beharrak, posible denarekin eta posible ez denarekin, egokitu behar ditugu. posible bada haurrak ordubete gurasoek lagunduta ateratzea, posible izan behar du nerabeak ordubete bakarrik ateratzea, nola egin mugatuta/adostuta.

# ▶ BAINA NOLA EGIN?

- Irtenalditxoan hartuko duen **DENBORA TARTEA NERABEARENA DA**, ez gurasoena/familiarena.
- Etxeko asanblada egin, bere nahiak, beharrak, kezkek, zalantzak adierazteko eta hauek asetzeko proposamenak egin, negoziatu eta **ERABAKITZEKO AUKERA EMAN**, kalera irteteak gonbidapen bat izan behar du, ez inposaketa bat.
- Gobernuak ezarritako baldintzak azaldu. Irtenaldi mugatuak direla eta oraindik arazoak kalean jarraitzen duela azaldu. **GUTXIENKO ARAU BATZUK** finkatu.
- Ardura proposamenak egiteko aukera eman, negoziatu eta **ERABAKITZEKO AUKERA EMAN**, ardurak hartzen utzi.
- **SAIHESTU ESPEKTATIBA OSO ALTUAK**. Norberaren denbora errespetatu eta kalean egotera ez behartu.
- Kalean dagoen bitartean, **errespetatzea eta konfiantza izan**. Bere momentua da, ez dugu deituko, mezurik bidaliko ezta zelatuko.
- Bueltatzean, ez egin galdera gehiegi, ez inbaditu. Zelan zaude? Zelan joan da? batekin nahikoa izango daiteke, ez gara poliziak. Nahi badu zerbait kontatuko digu, bestela errespetatuko dugu. Aukeran, guk geuk egin dugun zerbait kontatu ahal diogu, agian elkarrizketa baten hasiera izan daiteke.

Komunitatearen eta helduon ardura da nerabeek bizi dituzten hainbat egoera eta erronkari arreta jartzea. Alarma egoerak nerabeei sortu dien eskubide urraketa eta egoera latzari arreta jartzea eta komunitate bezala irtenbideak bilatzen saiatzea, besteak beste.

Nerabe askorentzat, eguneroko bizitzako ekintzetan parte- hartzea, partaide eta baliagarri sentitzeko aukera izan daiteke, haien erantzukizuna erabiltzeko aukera, baita ere haien familiei laguntza ematen dietela sentitzeko.

Eguneroko bizitzako ekintzetan parte- hartzeko ez da bestelako prestakuntza berezirik behar, konfiantza baino ez dugu izan behar, haien garapen eta gaitasunei egokitutako akziorako margena eskaintzea beharrezkoa izango da, agian gauzak ez dira guk espero dugun moduan egingo, malguak izan behar dugu, konfiantza izan.

Argibide teknikoak eman ahalko ditugu, baina aldi berean haiek haien erronka propioak markatzeko moduak bilatu beharko dituzte. Eta noski, guk helduok bezala esker onekoak izan behar dugu, ulertu behar dugu agian ekintzaren bat hasi eta bukatzeko gai ez izatea. Denbora eman, gauza bakoitzak bere denbora behar du.

Prozesu honetan guztian zehar garrantzitsuena izango da nerabeei autonomia eta gaitasuna aitortzea, haiengan konfiantza osoa daukagula eta maite ditugula adieraztea. Adierazteko modua, erabakiak eta ardurak hartzeko espazioak eta tresnak eskaintzea, gai direla eta haiengan sinesten dugula adieraztea.





*Guztion artean, ziur gaude irtenalditxo hauek  
etxeko haur eta nerabeen ongizaterako lagungarriak  
izango direla. Ahalik eta lasterren zuekin berriz  
elkartzea espero dugu, baina, bitartean, badakizue  
zuen ondoan gaituzuela behar duzuen horretan  
laguntzeko prest, arratsaldero zuongandik  
gertu egoten jarraituko dugu etxean goxo,  
Kokorikoko ipuin, abesti, dantza, jolas, erronka, ...  
proposamenekin.*

**EGURALDIAK EZ  
GAITZALA GELDITU!  
DAUDEN AUKERAK  
BALIATU!**

**KALEA BIZI,  
KALEA JOLASTU!**

Edozein zalantza edo kezka izanez gero, gustura jarriko gara zuekin batera pentsatzen  
Besarkada handi bat,

**HARREMANETARAKO**  
693855312 (ARITZ LILI LEKANDA)  
hezkuntza@aiaraldea.eus

